

BERRIGARA

221. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, otsailak 2

MARIAREN
LAGUNDIKO
ORGANOA

Bergarako organoak



Juan Ma

ARGAZKILARIA



2 urtetik 18ra ikastetxe berean

BATXILERGOA ETA U.B.I.

DERRIGORREZKO 2. HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

HAUR HEZKUNTZA



ARANZADI

IKASTOLA

San Martin Plaza, 4 ☎ 76 26 76 - 76 56 76

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

ESKAINNTZA:

- **Haur hezkuntza**
- **Lehen hezkuntza**
- **Derrigorrezko bigarren hezkuntza**

MATRIKULA EGITEKO:

- **Otsailaren 1etik, 20ra arte**
- **Goizez: 8.30-13.00**
- **Arratsaldez: 15.00-18.00**

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnua eta Faxe: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkorobereizibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariipi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza
Miguel Angel Elkorobereizibar
Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jauriaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

AITOR BELATEGI

Murinondoko auzo alkatea


- San Blaseko jaiak ospatuko dira asteburukaberan. Badago Bergaran opilak bedekatzeko ohiturarik?

- Bai, Santa Marinaran egiten omen da eta Murinondora ere jende asko etortzen da. Auzotarrak ezezik beste hainbat tokitako herritarrak ere hurbiltzen dira.

- Programaren barruan San Blas ermitako hermandadeko bilera aipatzen da. Zer erabakitzen da bertan?

- Aspalditik egiten da bilera hori eta ermita urtebetez zaintzeko baserri bat izendatzen da. Goitik behera pasatzen da testigua baserriz baserri eta, beraz, Ziarreta baserriak Etxe-Alairi utziko dio testigua aurten.

Azken batean, baserri-



koek *mayordomo* lana egiten dute eta ermita zaindu, urteko mezak antolatu eta San Blas eguneko salda eta txorizoa prestatu behar izaten dute.

Urtero Santa Ageda egunean egiten da aldatzea eta bileran auzoko zazpi baserrietako kideak egoten gara.

"Hermandadeko bileran ermitaren ardura hartzeko baserri bat izendatzen da"

I T U R R I O N E T I K

Turismorako makina interaktibo bat jarriko da Fraiskozuri plazan

Deba Garaiko Mankomunitateak eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak elkar lanerako sinatutako hitzarmenaren ondorioz, turismorako makina interaktibo bat jarriko da aurki Fraiskozuri plazan. Mankomunitateko hainbat udalek aipatutako makina eskatu zuten eta Eskoriatzako Irakasle Eskola proiektu horretan ari da lanean. Badirudi zertxobait atzeratzen ari dela proiektua baina baliteke Aste Santurako prest egotea. Bergarara hurbilduko liratekeen turista eta bisitariek aukera izango lukete herriaren inguruko informazioa jasotzeko, aireportuetan izaten diren makinaren antzekoarekin.

E S A N
D U T E

"Bergarako Udaletik gertu daudenek adierazi dute Udalak 25 milioi eskaini dizkiola Iñigo Idarretari Udal Pilotalekua uzteko, baina honek ez du onartu (...). Bitartean, kaltetuena pilota bera da: behe mailetakoa, pilotari gazteek ezin dutelako entrenatu eta zalegoa, jabugoarekin ohitu eta gero mortadelarik nahi ez duelako"

JOSEBA LEZETA
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

"Kotxeen matrikulazio zerga kentzea izango litzateke egokiena. Horrekin foru aldundiek diru gutxiago batuko lukete, baina bestalde, ekonomiaren erreaktibazioa ekarriko luke kotxe gehiago salduko lirateke eta. Gainera, esan behar da, Europako Ekonomia Elkarteko estatuetan ez dagoela matrikulazio zergarik Estatu espainolean izan ezik"

CARLOS ETXANIZ
Kotxe saltzailea
EUSKADI IRRATIA



EL PRESIDENTE Y MISS WADE

Larunbata: 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



MORTAL KOMBAT

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00.



LA PARADA DE LOS MONSTRUOS (J.B.)

Ostirala (hilak 9): 20.00.

Zinea

▼▼ **Rob Reiner** (*Cuando Harry encontró a Sally, La princesa prometida*) zuzendariak boterearen inguruko erreflesioa planteatu du bere azken filmean. Estatu Batuetako presidente izateak alde onak eta alde txarrak omen ditu. *Sheperd* (**Michael Douglas**) presidentea alargun geratu ondoren, berriz maiteminduko da *Wade* (**Annette Bening**) talde ekologista bateko ordezkariarekin.

▼▼ *Shang Tsung* piztia maltzurak (**Cary-Hiroyuki Tagawa**) laguntza berezia eman dio printze bati honek bere arerioak menperatzeko. Baina Mortal Kombaten hamargarren txapelketa irabazten badu, betirako hondamena izango da munduan. **Paul Anderson**ek zuzenduta, **Christopher Lambert**ekin.

▼▼ *Forum Cinematographe* taldeak antolatutako bigarren emanaldi honetan **Tod Browning** iparramerikarrak 1932an zuzendutako filmea ikusi ahal izango dugu. Bertan zirkoaren mundu majikoa aurkezten zaigu, fantasia, misterioa eta terrorea tartekatuz. Klasiko honek 64 minutuko iraupena du eta jatorrizko bertsioan eskeiniko da.

Deiak

▼ **Dani Laskurain**en margo erakusketa Bergarako Kultur Etxean, otsailaren 11ra arte.

▼ **Pedro Luis Ormazabal**en argazkiak Elgoibarko Kultur Etxean, otsailaren 29ra arte.

▼ **Matinala.** "Caravana al oeste" filmea igandean 11.30etan Novedades aretoan.

▼ **Argazkiak.** Juan Antonio Unzurrunzagaren erakusketa Nairi tabernan.

▼ **Beart** arte elkarteak otsailaren 9tik 11ra bitartean Madrileko ARCO feria ikustera joateko irteera antolatu du. Izen-ematea Kultur Etxean, 76 44 46 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 4:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 2:** Guallar.
- ▼ **Larunbata 3:** Estella.
- ▼ **Igandea 4:** Estella.
- ▼ **Astelehena 5:** Mozos.
- ▼ **Astearte 6:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 7:** Puy.
- ▼ **Osteguna 8:** Guallar.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotak •
- Moketak eta tapizatuak •

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

Jokabideen Psikologia Kabinetea
J.R. FERNANDEZ

Antsietate, depresio, stress eta bikoteen arazoaren diagnostiko eta tratamendua

Ramon Maria Lili 2, printzipala eskuma
Telefonoa: 76 59 39 • Faxa: 76 25 72

Dani Laskurainen

Margo erakusketa Kultur Etxean

Dani Laskurain 28 urteko bergarar margolariaren erakusketa zabalduko da gaur arratsaldean Kultur Etxean. Dani Laskurain Arte Ederretan lizentziatua da Leioako Fakultatean eta gaur egun Iruñeko institutu batean klaseak ematen ari da.

Otsailaren 11ra arte ikusgai izango den erakusketa honetan Laskurainek 30 lan inguru eza-gutzeraz emango ditu: "7 koadro haundi eta enmarkatutako beste 20 marrazki, erakutsiko ditut. Kasu gehienetan mate: "... pobreak erabiltzen aitut nere lanetarako, kalean aurkitzen ditudan gauzak erabiliz..., denetarik bartzen dut kalean. Birziklatutako papera ere asko erabiltzen dut eta collage teknikarekin jolastea asko gustatzen zait". Dani Laskurainek grabatuak ere egiten ditu eta orain gutxi hautatua izan da Estatu mailan antolatutako grabatu lehiaketan.

Gaur zabaldutako erakusketak "Musika" izenburua dauka eta berau Aritzeta abesbatzari dedikatuta dago. "Zenbait koadrok musikarekin zerikusia dute. Partitura



Dani Laskurain (leheoa eskumatik) Arte Ederretako beste lau lizentziaturekin batera. EL CORREO

zabarren ganean egini-ko marrazkiak dira. Aritzeta kidea naiz eta bertako partaide eta herriko musikari guztiak omendu nahi izan ditut erakusketa honekin. Eragin haundia izan du musikak niretzat. Margolari batentzat osagarri perfektoa dela esango

nuke, asko aberasten baitzaitu. Margolari ala abeslari hobe den galde-tu diogunean zera erantzun digu Danik: "Ez bata eta ez bestea. Baina zerixobait hobe margotzen naizela esango nuke".

Hurrengo proiektuen artean tesia bukatzea eta margotzen jarraitzea aipa-

tu ditu Danik. "Margotzen jarraitu eta noizean behin erakusketak egiten jarraitu nahi dut".

Bere gustoko pintorengatik galdetzean, Joseph Cornell eta Andy Warholen izenak aipatu dizkigu Danik baina bere hitzetan, "azken batean ez dut uste inoren influentzia dudanik. Hori baino, kalean ikusten ditudan gauzetan asko fijatzen naiz eta hortik jasotzen ditut ideiak, baita aldizkarietatik ere, denetan fijatuz, hori da".

Laskurainek Aritzetari eta herriko musikariei dedikatu die erakusketa

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

LARREA

TABERNA

**Kale Barren, 17
ANTZUOLA**

Zigorra, latza benetan

Ostirala, arratsaldeko hiru t'erdia dira eta Bilbon aurkitzen naiz autobus geltokiko tabernan, Egin egunkaria besapean gizon ezezagun baten zain. Ikusi bezain pronto konturatu naiz bera dela nire zita. Esku batekin pakete handi bati eusten, baita txapa bat zintzilik ere, kometa txiki bat, gartzelako oroigarria noski. Agurtu eta berriketari ekin diogu, anaia dauka gartzelan. Sei urte daromatza Ceutako gartzelan, beraz dagoeneko ondo ezagutzen ditu bidaia honen gorabeherak.

Arratsaldeko 4retan, Madrilera autobusa hartzean Ceutako gartzelaraino eramango gaituen bidaia hasten da, gure lagunekin tartetxo batez hitz egiteko egin beharko dugun bidaia luze eta gogoraren hasiera baino ez da.

Gaueko 9ak aldera heltzen gara Madrilera, 11etan Algecirasera eramango gaituen tren hartu behar dugu, beraz tren geltokirako autobusa hartu eta bertara abiatzen gara. Geltokian etxetik eramandako bokadilo zati bat jan eta han eserita eman dugu denbora. Gau guztia eman dugu trenean, goizeko 9ak arte, baina ez da hemen amaitzen bidaia, oraindik Ceutara heldu beharra daukagu. Ceutara eramango gaituen ferrya 10 t'erdietan ateratzen omen da, beraz hemen ere itxaron behar. Ferryan bi ordu egin ondoren Ceutan zerbait jan dugu eta gartzelaraino eramango gaituen autobusa hartu dugu. Azkenean eguerdiko ordu bietan gure helburua lortu dugu, Ceutan dauden gure lagunenganaino heltzea.

Nekatu samar gaude biak baina lagunak ikusiko ditugun ilusioak nekeak ahaztu eragiten digu. Urduritasuna biongan nabaria da, "vis a vis" a daukagu. Sei urteren ondoren Eukene besarkatu dudan lehen aldia da; kristalik gabe, garrisirik gabe, lasai-lasai hitz egiteko aukera. Sarritan kallean apreziatzen ez ditugun gauzak egoera berezi honetan zoragarriak bihurtzen dira.

"Vis a vis"aren aurretik kabinan bisita dudala esan didate. Kabinetako gelara sartu naizenean

iluntasunean aurkitu naiz, Eukene etorri bezain laster funtzionarioari argia pizteko eskatu diogun arren, honako erantzuna jaso dugu: "Yo soy funcionario de prisiones y no electricista". Denuntzia bat sartuko diogun meatxua ere egin diogu baina bost axola berari, oso ondo daki salaketa horiekin zer gertatzen den eta momentuz bere helburua lortu du: bisita oraindik ere zailagoa egitea.

"Vis a vis"era sartzean besarkada goxo bat, musuak eta berriz ere besarkadak. Hitz egiteko txanda hartu behar, urte guztiko kontuak bi ordutan esateko gordeta, gehiegi da, ez dago denborarik, bostak heldu dira eta kanporatzeko ordua heldu dela ohartarazi dit funtzionarioak.

Agurtzeko ordua heldu da, inpotentzia eta mina nahasten dira nire barnean. Nork daki noiz ikusiko dugun elkar berriz, horren bidaia luze eta garestiak (30.000 pztz.) ezin baitira edonoiz egin.

Berriz ere bidaia luze eta gogorra egin behar: autobusa, ferrya eta Algeciraseko portutik irtezerako gindoazela "Guardia Civil"ak karneta eskatu eta gelatxo batean sartarazi nau: "Quitese el jersey", jertsea kendu eta gorputz guztia katxeatu ondoren: "Quitate los pantalones". "¿Cómo?". Gorri-gorri jarri eta noski prakak kendu behar. Katxeo berri bat eta "Te puedes ir!". Bidaia luzean zehar bi gauza buruan bueltak: Eukenerekin izandako bisitaren momentu goxoen oroimena eta bestalde, preso hauei bereziki eta beraien senide eta lagunei ezarritako zigor latza.

Presoek bisitarik eduki ez dezaten, babesik gabe egon daitezen Gobernu Espainolak diseinatu eta PNVk bultzatutako dispersioa. "Bakezaleen" hitz politen atzean eskutatzen den beste biolentzia mota bat gehiago, komunikabideek inoiz isladatzen ez duten sufrimenduz jositako zigorra. Aldaya bahitu aurretik euskaldun askok jasaten dugun ezkutuko biolentzia, lazo urdina daramaten horiek inoiz salatu ez duten eskubide guztien zapalketa. Euskal presoak Euskal Herrira orain!

K. ELKORO (NAN: 15.380.690)

Bake proposamena

Franco generalaren errejimena amaituta, transizio politiko bataiatu zenaren hasieratik hogeituz bete dira. Gertakari historiko hari aurre egiteko, diktadorea zendu baino hilabete batzuk lehenago indar politiko guztiak hasiak ziren aurrera eta atzeraka. Euskal Herriari zor zaion autodeterminazio eskubidea eta lurraldearen batasuna aintzakotzat aitortzea zen ia indar politiko guztien (PNV, PSOE, PCE... eta Ezker Abertzalea) jarrera. Akordioegune amankomun batzuetara iritsi zen, gerora indar politikoen jokaerak bestelakoak gertatuko ziren arren.

Garai hartan erdietsi genuen kontesntsua Euskal Herrian, hausdura demokratikoari dagokionean: Izaera demokratiko sakoneko puntu haien gainontzeko indar politikoek bertan behera utzi zituztelako. Horrela eratu zen "KAS Alternatiba". Hogeituz pasata, Euskal Herria aintzat ez hartzean euskarri zuen transizioeko proiektu politikoa porrot eginda dago. Baskongadetako Estatutua eta Amejoramendua, Estatu espainoleko Konstituzioaren uztarpean ezarriak, geldirik gaude. Soluzionatu gabeko istiluaren abiagunean gaude. Euskal gizarte osoari etorkizunerako atea zabaltzen lagunduko dioten bakea eta demokrazia erdietsi behar ditugu. Hortxe kokatzen da iazko apirilean aurkezturiko bake-proposamena: dokumentu hartan, gure herriari zor zaion demokraziaren oinarriak adierazita, istiluari soluzioa emateko gunea adierazten da: herri borondatea nagusi izango den bake eta demokraziako egoera sortzeko, Euskal Herriari dagozkion lurraldeen batasuna eta autodeterminazio eskubidea aitortzea.

Bake-proposamen hau zuri ezagutarazi eta bertan sakontzea dugu helburu, horretarako euskal geografia osoan, herriz-herriz, aurkeztuz. Bergaran aurkezpena otsailaren 8an egingo da UNEDen. Interesa baduzu zatorz ostegunean.

BERGARAÑO HERRI BATASUNA

Tiira biraka

30 urtean lan eta lan, 30 urtean trekeoak egiten eta ezertxo ere ez. 30 urtean Gizarte Segurantzaren kotizatzen eta ez dit ezertarako balio izan.

Gizarte Segurantzako zenbaki bera zuen loteria-dezimoa erosi nuen arte eta ikusten duzue... 500 milioitxo!

**JULIAN PEDROSORI
PRIMERAN DOAKIO
BIZITZA...**



ALEX UGALDE

J. PEDROSORI EGINDAKO AZKEN TXEKEOA

Meloiaren parekoa, sendaezina.

Egia da bai, minbizi-mota hau sendaezina da.



◆ **Odol ateraldia**

Bergarako odol emaleen elkarteak dei egiten du asteazkenean, 7etan, Seminarioko bajuetan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

◆ **Eskulanak**

JARDUN Elkarrekin 11 urtetik 14 urtera bitarteko gaztetxoentzat eskulan ikastaroa antolatu du otsailaren 24tik maiatzaren 18 bitarteko larunbatetan. Izen-ematea (2.000 pta.) otsailaren 16ra arte.

◆ **Hika Antzuolan**

Antzuolan, Hika ikasi eta praktikatzeko juntaizak antolatu dira. Otsailaren 7xan, 7retan herriko eskoletan lehen juntaiza eingo da.



Irala zine aretoa bota ondoren, bertan bulegoak, baju komertzialak eta garajeak egingo dira.

Irala zine aretoa bota eta eraikuntza berria egingo da

Aurreko ostiraleko

Plenoan Udalak eta Irala zine aretoko jabeek sinatuko duten hitzarmena onartu zen, EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko eta HBren kontrako botoekin. Hitzarmenaren arabera, zine aretoko edifizioa bota ondoren, bulegoak, garajeak eta baju komertzialekin beste eraikuntza bat egingo da bertan. Jose Maria Irizar eta Jesus Quemadak ordezkatzan duten Espectáculos Bergara S.A. enpresak 18 milioi pezeta emango dizkio Udalari, aprobetxamendu urbanistikokoaren %15aren ordainetan. Hitzarmena si-

natu eta ondorengo 7 hilabeteetan edifizioa bertan behera bota beharko da eta jarraian proiektu berria aurkeztu.

Boto esplikazioan Jesus Mari Garitanok (HB) Udalarentzat negozio txar bat zela adierazi zuen, diru gehiago lor bait zezakeen bere ustez. Edifizioa bota eta presarik gabe itxoitearen alde azaldu zen Garitano. Victoriano Gallastegik, alkateak, (EAJ) hitzarmenaren aldekoa zela esan zuen eta aurreko udal gobernuak ere ez diotela arazoari heldu.

Plenoko beste puntu batean, Gipuzkoako U-

ren saneamendu planari buruzko hainbat iradokizun onartu ziren, besteak beste, San Prudentzioko depuradora piskat gorago egitea (Tavesa lantegia errespetatzeko) eta ur zikinena Mekolalden, eta ez Impreci ondoan. HBko zinegotziak abstenitu egin ziren botazioan, beren ustez beste alegazio batzu ere jaso behar baitziren, "tarte animaliak eta bizitza bejetala errespetatzeko zementozko kajoak ez egitearena". Alkateak Deba ibaiaren bizitza errespetatzeko beharrezko neurri konkretuak hartuko direla erantzun zion.

HILDAKOAK

Luis Aranzabal Gantxegi

Urtarrilak 24, 69 urte

Loren Uribarri Iraeta

Urtarrilak 26, 66 urte

Bonifacio Lazkano Larrañaga

Urtarrilak 26, 90 urte

Gregoria Eguren Txintxurreta

Urtarrilak 27, 94 urte

Luis Aranzabal Gantxegi

Urtarrilak 28, 86 urte

JAIOTAKOAK

Marta Zubia Torre

Urtarrilak 18

Elene Sasieta Barrutia

Urtarrilak 22

Irati Rodríguez Inza

Urtarrilak 23

Nerea Etxaniz Arizmendiarieta

Urtarrilak 27



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

◆ Ipintza eta Miguel

Altuna institutuen deia


Datorren ikasturtean (1996-97) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (D.B.H.-E.S.O.) lehenengo zikloa ezarriko da. Hau dela eta, aurreko Bergaran OHoko 6. eta 7. mailan ari diren ikasleek guraso guztiei datorren ostegunean, otsailak 8, Miguel Altuna institutu berria (Ipintza ondoan), arratsaldeko 6 t'erdietan egingo den bilerara dei egiten zaie. Bertan, Antzuola, Elgeta eta Bergarako ikastetxe publikoek burututako hezkuntz proiektuaren berri emango da.

◆ Caritasen oharra

Bergarako Caritas erakundeak honako ordutegia izango du jendaurrerako. San Pedro parrokiako Caritas (Komenio 4, behean), hilaren 2. eta 4. asteartean, 18.30etatik 19.30etara; Santa Marinakoa (Alkabieta 1ean), hilaren lehen eta 3. asteartean, 18.30etatik 19.30etara eta, azkenik, Caritas-Arropategi zerbitzua (Goenkale 2an) hileko lehen eta 3. asteartean izango da zabalik, arratsaldeko 3retatik 5etara.

◆ Gurutze Gorriko kanpaina

Gipuzkoako Gurutze Gorriak eskolako materiala biltzeko kanpaina jarri du martxan. Bildutakoa Kubara bidaliko da. Materiala herriko ikastetxeetan eta ondoko komertzioetan jasoko da: Peñalba, Idatzi, Marcó eta Ikasi liburudendetan, Garbil inprimategian eta Azkarate, Zangitu, Etxeberria eta Barrenkaleko estankotan.



Estela García Agarreko garaixean neurketa batzuk egiten asteazkenean.

Agarreko garaixeko onddoentzat urtebeteko tratamendua

Mungiako Tecma enpresa asteartean hasi zen lanean

Mungiako Tecma enpresak aste honetan bertan ekin die Agarreko garaixean agertutako onddoak desagertarazteko lanei. Gogoratuko duzue, pasa den urrian agertu ziren aipatutako onddoak eta Udalak arazoa konpontzeko ikerketa agindu zuen. Estela García Tecma enpresako biologoaren hitzetan, "orduan egindako ikerketan bezetasuna piezaz pieza neurtu genuen, zutabetako muestrak ikertzeko eramanen".

Estela García zuzentzen duen taldea asteartean hasi zen Agarreko garaixea tratatzen. Berak azaldutakoaren arabera, tratamendua luzea izango da. "Onddo xilofagoen eraso gogorra eman da eta, horrez gain, intsektuen beste eraso arinago bat.

Tratamendua urtebetekoa izango da. Egurrean zulotxo batzuk egin eta injekzio balbulen bitartez onddoen kontrako gel berezi bat sartuko dugu. Aipatutako gel hori noizean behin berriz sartzera etorri beharko gara urtean zehar". Udaberrian, berriz, pipiaren kontrako beste tratamendu bat egingo da.

Estela Garcíaaren ustetan, "onddoen eraso ez da normala. Oso kasu berezia da oraingo hau eta guk behintzat ez dugu horrelako beste kasurik izan. Horregatik prestatu dugun tratamendua berezia da. Bestalde, bezetasuna ere ez da normala. Normalean bezetasuna %15ekoa izaten bada ere, Bergarako garaixeak %93ekoa dauka".

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Gaur hasi eta astebukaeran zehar San Blas jaiak Murinondo auzoan

Astebukaera honetan San Blas jaiak ospatuko dira Murinondo auzoan.

Gaur ostiralerako, 20.30etan auzo afaria eta Gezalaga anai-arrebek alaitutako erromeria iragarri dira eta

bihar larunbata, 11etan Meza

Nagusia eta opilen bedeinkapena, ondoren salda eta txorizoa banatuko dira, 12etan Xamatz dantzataldearen

saioa eta arratsaldeko 4retan mus txapelketa. Igandean, berriz, 11etan

Meza Nagusia, ondoren salda banaketa eta 12etan mendiko

bizikleta ibilaldia egingo da.

Astelehenean, 19.00etan San Blas ermitako hermandadeko kideen

bilkura egingo da.



Bihar San Blas opilak bedeinkatuko dira Murinondon.



Mikel Larrea Antzuolako alkatea eta Iñigo Ramírez zinegotzia joan zen ostegunean Antzuolako udaletxean egindako batzarrean.

Antzuolako Kultur Etxearen edukiak eta ezaugarriak

zehazteko osatutako herri batzordearen bilera izan zen joan zen ostegunean Antzuolako Udaletxean. Batzordean 75 antzuolar (50 udal errolda erabiliz zozketaz hautatuak eta beste 25 borondatez parte hartzen dutenak) izango dira, Kultur Etxeak eskaini beharreko zerbitzuak edota beste talde edo ekintzen garapena aztertu beharko dituztelarik.

Herri batzordeak hemendik eta martxoaren 29ra arte egingo ditu bilerak eta Kultur Etxea Olanan Etxean ala Maristen ikastetxean kokatu ere erabaki beharko du.

◆ Presoak gose greban

Aritz Egidazu, Iñaki Ibabe, Mikel Osa eta Pedro Zumelaga preso bergararrak gose greban daude astelehenera, euskal presoek beren Euskal Herriratzea eskatzeko antolatutako gose greba txanden barruan. Txanda hauek 15 egunekoak izango dira eta martxorarte iraungo dute.

◆ Tolosari omenaldia

Gaur ostirala, 19.15etatik aurrera, Oxirondo elkarteak omenaldia eskeiniko dio Josean Tolosa pilotari ohiari Udal Pilotalekuan. Sarrera 600 pezetan salduko da eta batutakoa herriko pelotari eskolara bideratuko da.

◆ Santa Ageda eskean

Igandean, Santa Ageda bezperan, Jardunekin abestera aterako direnak Kartzela Zaharrean bilduko dira arratsaldeko 4 terdietan.

◆ Gestoren asanblada

Gaur ostirala, 19.30etan, Gestoren asanblada informatiboa izango da Plazan, Luis Etxeberria presoak jasandako tratua txarren berri emateko.

◆ Gorrentzako emanaldia

Asteazkenean, hilak 7, "Dónde estás?... Yo estoy aquí" filmea emango da 16.30etan Arans-Gin.

◆ Jubilatuen oharra

Irungo "La Bacaladera S.A." ikustera joateko egun osoko irteera egingo da asteazkenean, hilak 7. Astelehenean, berriz, hitzaldi medikoa izango da arratsaldeko 4 terdietan.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

AKORT

Natura

Mendirako aholkuak

- Zeintzuk dira mendira joaten hasteko oinarrizko gomendioak?

- Bueno, nik lau gauza ezberdinduko nituzke: prestakuntza fisikoa, ekipoa, janaria eta ezagutza teknikoak. Hasieratik nolabaiteko prestakuntza psikologikoa izan behar da: ez da mendira joateagatik joan behar baizik eta zerbait lortzeko helburuarekin eta horretarako hezitzaileek iharduera interesgarria eta aberatsa dela transmititu behar diete haurrei. Lagun onak egin daitezke mendian eta nere lagun batek esaten didan moduan, "mendizalea bada, pertsona ona izango da".

Prestakuntza fisikoari dagokionez, ez da aparteko prestakuntzarik behar. Forma lortzen joango gara mendian ibiltzen garen neurrian. Edozein joan daiteke mendira baina beti ere joan eta etorriko bidaiari pentsatuz. Mendian istripu txiki bat izateak ere ondorio latzak izan ditzake eta horretarako oso inportantea da lagunduta joan eta norbaitek nora zoazen jakitea.

- Ekipora pasatuz, zer behar da mendira joateko?

- Beti botak erabiltzea gomendatuko nuke, zapa-tilek bihurtuak eta ekartzten baitituzte askotan. Gainera, botak hobeto gertatuta daude euri eta hezetasunerako. Bestalde, mendira motxila bat era-



FELIPE URIARTE
(Mendizalea)

man behar da beti: bertan hotz edota eurirako txamarra bat gordetzea komeni da, eguraldi aldaketa latzak ematen baitira mendian. Esandakoa eta

"Ez bakarrik gailurrera heldu, mendira goazenean inguru guztia ezagutzea komeni da"



Mendi irteera interesgarrietako bat Atxartera joatea izan daiteke.

kantintplora bat ezinbestekoak dira mendian.

- Eta janaria?

- Janaria ere oinarrizkoa da. Mendian laupabost ordu jarraian ibiltzen gara eta janariak arina behar du izan. Guztiok jaten ditugu enbutidoak, baina ez da komenigarria. Hobe txokolatea, fruitu lehorrak eta produktu energetikoak hartzea. Gutxi eta askotan jan behar da. Ura ere oso garrantzitsua da, deshidratatu egiten gara eta. Ur asko edan behar da eta ura topatzeko ziurtasunik ez badugu onena etxetik eramatea izango da.

- Azkenik, ezagutza teknikoak. Non ikasi ditzakegu?

- Orientazioari buruzko ezagutzak izatea ezinbestekoa da. Horretarako eta natura hobeto ezagutzeko ikastaroak izaten dira eta oso ondo datoz. Bestela, plano txiki bat eraman eta aurretik martxa gertatzea ere ona izaten da. Mendia ezagutzeak martxarekin askoz gehiago gozatzea suposatzen du. Ez bakarrik gailurrera heldu, inguru guztia ezagutzea ere komeni da, beti ere mendia garbi lagaz. Horren kontzientzia hartzen badugu (eta horretarako daude Mendia Bizirik bezalako taldeak) irteera oso atseginak egin ahal izango ditugu.

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

I. KAPITULUA

SARRERA

Aste honetan hasi eta hurrengo zortzi aleetan herriko organoen berri emango digu ataltxo honetan Iñigo Alberdik. Organoak herri-ondarearen zati garrantzitsu eta Bergarako herriak musikarako izan duen, eta daukan, zaletasunaren adierazgarri dira. Zortzi kapitulutan herriaren diren organoei buruzko azalpenak emango dizkigu.

Organoa, askotan esaten denez, instrumentuen errege kontsideratzen da. Bere arbasoak Greziako tresna hidrauliko batzuk omen dira, orain dela 2.300 urtekoak.

Organoaren funtzionamendua, oinarrian hauex da: auspo batek haizea mugitzen du eta tuboetara bidaltzen du. Tuboetan (mila-ka tubo dauzka organu batek) soinua sortzen da, tuboaren lodiera, materiale edota luzeraren arabera. Teklatutik aukeratzen da airea zein tubotara joango den.

Euskal Herrian organo ugari

Euskal Herria organo-ondare aldetik aberatsa da, musika zaletasunaren eta garai bateko egoera ekonomiko onaren ondorioa. Organo gehienak XIX. eta XX. mendeetakoak dira, zati haundi baten, frantziarrak, gertutasun geografikoak beti erraztu baitu

berrikuntzak eta korrante berriak jasotzea.

Eta Bergaran zenbat?

Bergaran zenbat organo dauzkagu? Sei dira herriaren sakabanatuta dauden organoak. Zaharrena 1889.ekoa da eta berriena, berriz, 1949. urtekoa. Ez da hala nolako kopurua.


Hauek, garai bateko herriaren eta herritarren gustu eta sentimenduetan adierazten dizkiguten agiriak dira.

Bestalde, ustedut beharrezkoa delako aipatzea organo hauen inguruan izan dela herriko mugimendu musikalaren zati haundi bat. Musika erakusten, adibidez, elizetako organujoleak ziren maisu, hauek ume talde bat hartzen baitzuten (tiplek) eta musika irakurtzen erakusten zizkieten, eta horrela etorkizuneko parroki-korua- ren partaideak trebatzen zituzten.

Gainera, organista izatea lanbide zen, "maestro de capilla" zeritzona, eta pertsona berak organo jo, klaseak eman edota zuzendutik egiten zituen. Profesionaltasun horrek musika erlijiosoaren maila igotzea ekarriko zuen.

Ezagutu eta gure egin

Hurrengo asteetan kaleratuko ditugun artikuluen hauen bitartez,



SANTA MARINAKO ORGANOAREN TUBOAK.

organo bakoitzaren datu interesgarrienak ezagutuko ditugu. Ez gara terminologia teknikoan sartuko. Helburua, ezagutzaren bitartez, "gure" egitea izango da, daukagun ondarea preziatzea.

Kasu batzuetan, gaur egun eliza baten dagoen organoaren aurretik beste bat zegoen.

Horiek ere aipatuko ditut, interesgarria baita moda aldaketek organoan izan duten eragina ikusteko.

Sei dira herriaren sakabanatuta dauden organoak. Zaharrena 1889. urtekoa eta berriena, berriz, 1949koa

Abeslari, organujole, auspolari eta abarrei dedikatuta

Besterik gabe, lantxo hau dedikatzea justua eta beharrezkoa dela uste dut.

Urte eta mendeetan zehar abeslari, organujole, auspolari, zuzendari eta abarrei, beraien lan eta afiziorik gabe ez genituzkelako izango gaur egun daukagun instrumentu eder hauek, gure erroen zati bat izan diren horiek.

Mikel Herzog

Begararrak bigarren diskoa aurkeztu zuen ostiralean.

Argazkia: JOSE LUIS CALLEJA

35 urteko kantaria pozik eta aldi berean oso urduri zegoen, gaur zortzi, bere jaioterrian kantatu behar zuelako. Frontoi behe aldea beteta zegoela, 500 bat lagunengatik aurrean kantatu zuen egun Madrilen bizi den musikariak. Desconexión abestiarekin hasi, Caníbal, Séptimo sentido, Un regalo de amor, e.a.ekin jarraitu eta 80 minututan 15 kantu abestu ostean hurrengo arte esan zigun.

Kontaiguzu, Mikel, orain arteko ibilbidea.

- 14 urterekin Sigris taldean hasi nintzen, Udaberrin ibili nintzen, Nekezen eta Korchen; 21

urterekin Madrilera joan nintzen, Ebano, Alcatraz, Cadillac eta La Década prodigiosan ibili naiz. Talde hauetan nengoen bitartean publizitatean eta konposizio lanetan

jardun dut. Taldeetan bateria nahiz baxua jo edo kantatu egin dut.

- Zein taldek laga dizu arrastoa?

- Ezin dut esan, bat esatea besteak gutxiesten delako, baina bat aipatzearen Zapato Veloz esango dut.

- Bakarleri nolatan?

- Nik konposatu eta ekoiztutako kantariak arrakasta handia dute; nire lanari esker Hegoameriketako artistek disko bakoitzeko miloi t'erdi ale saltzen dute. Arrakasta hori ikusita neuk kale-ratzea erabaki nuen.

- Zergatik joan zinen Madrilera?

- Joan nintzenezan nik egiten nuen musikak hemen ez zuen funtzionatzen, ez zuen entzulegorik. Meka Madrilen zegoela eta harantz abiatu nintzen. Dena den, egunen batean euskeraz kaleratzeko aukera ez dut baztertzen, arantzatxo hori kendu nahi dut.

- Publizitatean erlan egin duzu.

- Schweppes, Kas, Coca-Cola, Pascual esnea... Telebistako iragarkien %50a nik kantatuak dira. Ahotsa asko aldatzen dut, imitatzailerik onena naiz eta denetan desberdin kantatzen dut. La Décadan ere horregatik sartu nintzen.

- **Nor imitatzen duzu?**

- Gurrutxaga, Victor Manuel, Serrat, Miguel Rios, Michael Jackson, Eros Ramazzoti... nahi dituzun guztiak. Orduak sartuz ikasi dut.

- **Nolakoa da zure musika?**

- Ni rockero erromantikoa naiz, pop erromantikoa egiten dut. Denentzat kantatzen dut, baina nire letrak batez ere jende helduagoarentzat dira.

- **Bienvenidos al paraíso eta Un regalo de amor diskoen artean bilakaerarik badago?**

- 2.ean arregloak klasikoagoak dira, lasaiagoa eta klasikoagoa delako. Dena den, bietan gai garrantzitsu bati kantatzen diot, maitasunari, maitasuna orokorrean hartuta.

- **Gustora geratu zara 2. diskoarekin?**

- Oso, bestela ez nuen plazaratuko. 30.000 ale saldu dira.

- **Gaurko Mikel Herzog eta musikan hasi zen gaztetxo haren artean alderik badago?**

- Ikaragarri. Lehen rockero heavya nintzen eta orain rockero erromantikoa. Pertsona bezala, ostera, berdina naizela uste dut. Denborak ematen dizun heldutasuna dut, baina osteantzean, hasierako mutil gazte, borrokari eta ameslaria naiz.

- **Hemen baino eza-gunagoa zara Estatuan.**

- Euskal Herrian Dial

katea entzuten ez denez nire musika ez da zabal-tzen. Dial katea, irrati-formulan 2.ena da eta hor izugarri entzuten da.

- **Zergatik ez da entzuten 40 principalesen?**

- Kaña gehiago, makina edo bestela, erromantikoa kantari gazteagoak sartzen dituztelako, Alejandro Sanz, esaterako, ni baino gazteagoa da. Nire entzulegoa helduagoa da.

- **Azkenaldian zertan aritu zara?**

- Sekula ez naiz geldirik egoten. Azken hilabeteetan Serafin Zubiriren diskoa ekoizten jardun

dut. Bera da nire lagunik onena eta semearen aita-bitxia.

- **Euskal Herrian egiten den musikaz zein iritzi duzu?**

- Fran Iturberen bidez dakit zer egiten den. Musika alternatiboa zoragarria iruditzen zait, baina ez da nire estiloa. Nik garrantzitsu musika deritzot, garrantzitsu zentzu onean: Rosendo, e.a. bezala. Itoiz, Errobi... asko gustatzen zaizkit.

- **Gaur egungoak, Negu Gorriak, Gozategi... ezagutzen dituzu?**

- Ez.

- **Bergaran eta Euskal Herrian aurretik**


izan zara kantuan?

- Bergaran duela 15 urte; bestela, bakarlari inoiz ez naiz aritu Euskal Herrian.

- **Bergarara etortzen zara?**

- Nahi baino gutxiago. Madrilen dut lana, etxean dut estudioa, kontzertuak direla-eta kanpoan ere ibiltzen naiz... Badirudi topikoa dela, baina etxetik urrutiago zaudenean dena askoz gehiago apreziatzen duzu, lagunak, koadrila, mendia, frontoia...

- **Gehien zer gustatzen zaizu: konposatzea, jotzea ala kantatzea?**




"Eurovisionen herrian baino lasaiago kantatuko nuke"

LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

"Nik egindako kantuen interpretariak Hegoameriketara milioi \$erdi ale saltzen dute"



- Kantatzea. Ondoen horretan moldatzen naiz. Hala ere kantatzeagatik beste lanak ez ditut zokoratuko, musikari osoa izan nahi dut.

- Oholtza gainean kantatzen zahartzeaz zer diozu?

-Kantatzeko gogorik ez dudalako erretiratuko naiz, ez adinagatik. Kantatzen ez dudan egunean, konposatzen eta ekoizten jarraituko dut.

- Zein da zure ametsa musika munduan?

- Nahi dudana egitea. Beti lortu nahi da zerbait eta nik argi dut zer nahi dudana, gustura sentitzea egiten dudanarekin. Ez nago prest bizitza bat edukita, besteek diotena egiteko, zeresanak entzuteko. Ni neu naiz eta hala biziko naiz, barruak dioena egin ezean faktura etortzen baita.

- Musiko izateaz

gain, enpresaria ere bazara.

- 20 lagunekin etorri naiz Bergarara, baina oso argal daude. Batzuetan irabazi egiten da, bestetan galdu... bizitza tonbola da eta arriskatu egin behar da. Musikagintzan ez gara bizi sasoirik onenean; gizarte honetan aire berriak behar ditugu, al daketa etorri behar da.

- Zinerako eskaintzarik izan duzu?


- Musikari dagokionez ez, baina aktore lanetarako bai. Interpretazio klasetan ibilia naiz eta besteak beste, Ana Belenekin La bella Elenako protagonista izateko eskaintza egin zidaten. Promozioa zela eta ezetz esan behar izan nuen. Bestela, nik ezeri ez diot ezetz esaten, denetarik egiteko prest nago.

- Musikariak musika egin eta kantatzeaz "in-

dustriari" erantzun beharra dauka ezinbestean.

- Hori da gutxien gusztatzen zaidana. Musikaren alde izkutua eta jendeak

ezagutzen ez duena da. Promozioak, elkarrizketak egin beharra gorrotatu egiten dut. Beti berdina galdetzen digute... Hala ere, hemen Ameriketara



"Ez dut diskorik erosten, ez dut inoren eraginik izan nahi"

baino arinagoa da.

- Zuri zertan eragin dizu?

- Promozioa ordaindu egin behar duzu eta beste ezertarako astirik ez dizu lagatzen. Lehenengo diskorako, esaterako, disketxeak look berezi bat izatea eskatu zidan: ilea atzerantz engominatuta orrazteko, betaurreko barrik ibiltzeko... haren ondorioz dioptria gehiago dut. Oraingoan ez dut onartu horrelakorik, ni neu naiz, onerako edo txarrerako.

- Fans klubak ere musikaren alde txarztat jotzen dituzu.

- Ez! Leku askotan ditut: Geronan, Bartzelonan, Sevillan, Madrilen... eta gustatzen zaizkit. Fans klubak ametsen lantegiak dira, norbaiten ametsak elikatzen ari naiz eta jendea ez dago zertan esnatu. Nik badakit jende honentzat zer naizen eta ez dut zertan bazterturik.

- Zein eratako musika gustatzen zaizu?

- Tam Tam Go... Baina batez ere, nik sekula egingo ez dudana musika, horretarako prestatuta ez nagoelako, jazz rocka: Chic Corea, Stanley Clark, John McLaughlin... baina ez dut kontsumitzen, ez dudalako besteen eraginik nireganatu nahi.

- Zein da entzun duzun azken kontzertua?

- Alejandro Sanzena, nire emazteak koroak egiten dituelako. Victor eta Anarekin ere kantatu izan du, Pantojarekin...


- Bergararik Madrilerara, eta Madrildik Estatu Batuetara?

- Ez. Giran New Yorkera joan nintzenean erabat akonplejatuta geratu nintzen; edozein kale bazterretan sekulako musikoak entzuten ziren, txi-



Besteak beste Tractor amarillo edota Me gusta el fútbol (Canal Plus) kantuen egilea da eta telebistako ehundaka iragarkitan abestu du.

Kontzertuko argazkiak: Jose Luis Calleja.



ki sentitu nintzen. Oraindik asko ikasi beharra dut.

- Giretan nondik zehar ibili zara?

- Estatu osoan Euskal Herrian izan ezik eta Ameriketara. Bigarren diskoa aurkeztera apiril aldean abiatuko naiz.

- Bergaran noiz ikusiko zaitugu berriz?

- Ez dakit. Beharbada disko berria ateratzen dudanean.

- Noiz ikusiko du argia?

- Ea irailerako ateratzen dudana. Kantu asko ditut idatzita, maketak eginda... Gero borobildu egin behar da dena.


- Hasi berri den musikari bati zein gomendio emango diozu?

- Batere ez. Aholkuek ez dute balio; norbaiti aholku bat emanez gero ez du kasorik egiten, pentsatutakoa egiten du, beraz ez dute balio. Egin pentsatutakoa eta aurrera.



"Alejandro Sanzen kontzertua da entzun dudana azkena, emazteak koroak egiten ditu eta"

Griperik izatea tokatu zaizu? Gaisorik egon zara aurten?




Maria Eugenia Iturbe
30 urte, langilea

Ez, iaz pasatu nuen baina aurten ez. Gainera egon da gripearen kontu hori baina pasatu dela ematen du.




Juli Urkizu
63 urte, etxeoandrea

Bai, astebete pasatu dut. Arin samarra izan da baina aspirinak hartu behar izan nituen. Ez, ez dut bakunarik hartu.




Joseba García
34 urte, langilea

Ez, ez dut ezer hartu gainera. Inguruan tokatu zait baina neri, zorionez, ez.



Francis Sasieta
38 urte, langilea

Sukarra eta katarro piskat izan dut bai. Baina beste batzuetan baino gutxiago. Orain dela hilabete izan nuen.



Julen Hurtado
9 urte, ikaslea

Orain dela gutxi gaisorik egon naiz bai, kalentura piska batekin. Baina ez nuen hain gaizki pasatu.



Francisca Valero
36 urte, etxeoandrea


Ez, neri ez zait tokatu. Etxean, txikiak izan du baina ez da oso gogorra izan.



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24



NAHIKARI

Taberna
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71



Iturrietako urak

Ura gero eta ondasun urriagoa suertatzen ari zaigu. Oraingo honetan errekak, lakuak, etabar alhora utzirik gure inguruetan sorturiko iturriez jardungo gara.

1985. urteko uren lege berriak data horren aurretiko iturri pribatuak, nolabait esatekotan, legeztatze aukera zabaldu zuen. Hau da, legea berria izanik eta uren nortasuna aldatuta izan, eskubide pribatuak mantentzeko apostua jorratu zuen.

Administrazioak, bereziki baserritarren sindikatuak eta abarrek, 1985. urtetik 1988. urtera arte, 3 urteko epea baitzegoen, kanpaina emankor bat burutu zuten. Horren ondorioz Bergaran bertan eskari mordoska zuzendu ziren. Kasu askotan aipatutako eskarien erantzunik jaso ez delarik.

Oraindik ez baduzue erantzunik jaso saia zaitezte tramite horri amaiera ematen. Bere garaian edo geroztik, ez baduzue ezertxo ere egin, ez ezazue pentsa dena galduta duzuenik.

Oraindik ziur asko posible duzue zuen arazoari nolabaiteko irtenbidea ematea.

Sabin ZABALETA



Popperretik hartzera!!

Ongizate Estatuak krisi larrian dirau azken urteotan eta betidaniko saiak prest dauzkagu Estatu minimoa "berreraikitze"ko. Friedmann, Popper, Hayek eta Von Misesen gaurko itzultzaile politikoak (Kohl-Bismarck-ek burua jasoko balu!, Juppe, Aznar eta beste hainbat) mendean zehar langile mugimenduak eta sozialdemokratik lorturikoa lurperatzeko irrika bizian dabilta.

Aitzakia oso sinplea da: Maastrichteko adierazle ekonomikoak bete behar ditugula. Zertarako? Ekonomi neoliberalaren inperioari ateak zabaltzeko. Gaitz ekonomiko guztien jatorria gisagastuetan datza. Nor ausartuko litzateke Singapurreko "produktibitatea" salatzea? Bost axola, hango langileria pasa den mendean Manchesterreko langileak zituzten bizi baldintzen parekoak izatea.

Ekonomilariak, euroburokratak -egungo apaiz zientzialariek- horrela ezarri dute urbi et orbe. Eta ez omen dago lekurik eztabaidatzeko. Ekonomia zientzia da, aldarrikatzen dute. Eduki ideologikoa izkutan mantentzen da.

Ekonomia ekonomiaren zerbitzura, eta politikoei, berdin. Eta gizartea? Popperretik hartzea!!

Iñigo URRUTIA

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA



- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



TOSHARE

☎ 76 29 70



■ 500.000 pzta

Asteazkenean jaso zuen **Floren Larrañagak** Bergarako Dendarien Elkarteak Errege bezperan zozketatutako 500 mila pezetako saria. **165.451 zenbakia** zuen Flo-

renek eta Zubikua jantzidendan eskuratu zuen txartela. Argazkian, Floren Larrañaga **Ramon Mujika** Bedelkarreko presidente ordearekin eta **Felisa Elkoroberezibar** Zubikuako sortzailearekin batera.

■ Inausketa Espaloian

Udal brigadako langileek aste honetan ekin diete Espaloiko inausketa lanei. Bi urtean behin egiten da aipatutako inausketa eta, horren ondorioz, Espaloiko pasealekuko zuhaitzek itxuraldaketa nabaria izaten dute. Espaloiko inausketak bi aste inguru iraungo du. Udal brigadako langileek urte sasoi hau aprobetxatzen dute herriko hainbat lekutan inausketak eta beste lorazaintza lan batzuk egiteko.



■ Modelo xelebrea

Aurreko ostegun gauean **Virginia Imaz Oihulari Klowntal** taldeko partaideak "Modelo klowntrapublicitaria" izeneko antzezlanaren eskeini zuen **Pol-Pol** tabernan. Ikusle dexente izan zen bertan eta guztiek primeran pasatu zuten Virginia Imazek ordu t'erdiz landutako lanarekin. Ironia handiz, modeloen munduari buruzko erreflesioak planteatu zituen Imazek eta jendeak barre ugari egin zuen modelo xelebre honek azaldutako kezkekin. Hileroko azken ostegunean kafe-teatro emanaldia izango da Pol-Polen.

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
 - ✓ Eder gela
 - ✓ Bio Solariuma
- Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz, 4 EIBAR
☎ 76 63 42 ARRASATE

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak



■ **San Juan Bosco eta Santo Tomas**

Aurreko ostiralean Bergarako **ikastetxe ertainetako ikasleek** San Juan Bosco eta Santo Tomas ospatu zuten. Klaserik ez eta, jaialdi benetan dotoreak prestatu ziren Migel Altuna zein Ipintza institutuetan. Ikasleek beren umorea azaldu zuten aktuazio ezberdinetan, zenbait kasutan tele-


bistarako moduko sketschak eginez. Aurretik kiroletako finalak eta beste hainbat joku izan zituzten eta giroa primerakoa izan zen. Klase bakoitzeko ikasleek elkarrekin bazkaldu ondoren, juergak goizaldera arte iraun zuen.

■ **Hiru kantore**

San Pedro eta Santa Marinako kantoreek **Felix Aseginolaza, Bizente Okina** eta **Sabin Zelaia-ri** omenaldia eskeiniko diete datorren igandean, otsailak 11, Santa Marinako 12etako Meza Nagusian. **Juan Idigorasek** emandako informazioaren arabera, Okinak mutikotan monagilo hasi ondoren, tipletan jarraitu izan du Santa Marina parrokian. Felix Aseginolaza antzuolarra, berriz, orain 39 urte Bergarara etorri eta ordutik San Pedro parrokiako koruko kidea da. Azkenik, Sabin Zelaia oñatiarrak 47 urte daramatza gure artean parrokia bietan kantatuz. Santa Marina parrokian elizkizun guztiak berdinak egitea erabaki zen duela 36 urte. Apaiz eta eliztarrek bat eginik sortu zen Parroki Familia deritzona eta otsailaren 11n omenaldi berezia eskeiniko zaie hiru kantore fin horiei. Bergarar guztiei bertan parte hartzeko deia egiten zaie eliza bete-bete egin arte, hori izango litzateke omenaldirik ederrena eta.



Zertan dihardute ba?



Aritz Berraondo

Antzuolako pilotari gaztea Estatu Batuetara, Kaliforniara, abiatuko da datorren otsailaren 13an. Aritzek, beste hiru euskal pilotarirekin batera, hainbat partidu jokatu ditu bertan, Euskal Etxeek gonbidatuta. Besteak beste, San Franciscon eta Kaliforniako beste hainbat hiritan egingo dituzte pilota exhibizioak. Hemendik joandako lau pilotariak 10 bat egunez arituko dira partiduak jokatzen Kalifornian eta otsailaren 24a aldera itzuliko dira Euskal Herrira. Aurreko ostiralean, Berraondo berak, Goñirekin bikotea osatuz, Zumarragako txapelketako finalerdietarako sailkatu zen, Arbizu eta Txikitori 22 eta 17ko emaitzarekin nagusituz.

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilaskoak

Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77

Rosario Garitano

Beti ere umoretsu, Rosario Garitano (4 seme-alaba, biloba bat) Jubilatuetako aurpegi ezagunenetarikoa dugu. Bertako abesbatzako partaidea, beste iharduera askotan ere hartzen du parte eta "ikasteko gosea" duela (56 urterekin lortu zuen Eskola Graduatua) aitortu digu.

- Goizetan egiten duzun lehen gauza?
- Leihoak zabaldu, almortzia berotzen jarri eta periodikoa hartu.
- Goiza ala arratsaldea?
- Bakoitza bere gauzetarako.
- Jubilatuetan, zenbat ordu?
- Egunero ez naiz joaten. Segun...
- Zenbat lagun zarete koruan?
- 60 eta oso terapia ona da, oso erlajatuta egoten gara.
- Dutexan abesten duzu?
- Ez.
- Nolako musika atsegin zaizu?
- Martxosoa. Goxo horrek ere bai...
- Musika instrumento bat?
- Soinua eta pianoa.
- Hobby bat?
- Gauza denak gustatzen zaizkit... *frivolité* puntilloa egitea igual.
- Karta joku bat?
- Trukean egitea gustatzen zait.
- Irratia ala telebista?



"Jubilatuetako korua oso terapia ona da guretzat, alaitsu ikusten dut jendea.

Musika martxosoa gustatzen zait batez ere. Autobiografiak irakurtzea gustatzen zait eta pasiatzera Surra ingurura joaten naiz asko, oso polita da"

- Irratia. Debateak gustatzen zaizkit. Telebistan dokumentalak ere bai...
- Pasiatzera irtetzen zara?
- Ahal dudan guztietan.
- Bergarako txokorik politena?
- Surra ingurua asko gustatzen zait.
- Animalia bat.
- Txakurra.
- Kirol bat?
- Pelota.
- Kolore bat?
- Azula.
- Besteengan apreziatzen duzun bertutea?
- Gezurrik ez esatea. Ez dut gezurra onartzen.
- Zodiakoko zein seinu duzu?
- Libra.
- Horoskopoa irakurtzen duzu?
- Batzuetan bai.
- Irakurtzen ari zaren liburua?
- Erotuta egon zen emakume baten autobiografia. Autobiografiak gustatzen zaizkit.
- Noiz egin zenuen negar azken aldiz?
- Emozionatu sarri, baina negar ez naiz akordatzen.
- Eta barre zerekin egiten duzu?
- Irriparre erreza daukat.
- Astebukaeretan zer egitea gustatzen zaizu?
- Gizonarekin pasiatu, auzotxoak ikustera joan... Eta familiarekin batuta bazkaltzea gustatzen zait.
- Amets bat?
- Animaliak euren askatasunean bizi diren paraje eder batera joan.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behean BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

ETXEBIZITZA

Lokal komertziala Muger-tzan salgai ☎ 76 13 62.

Pisu amueblatuta aloka-tzen da Antzuolan.
☎ 76 64 65 (Gari).

Pisua salgai San Antonion.
Bi ganbara. ☎ 76 46 22.

Pisua salgai. Lorategiare-kin. ☎ 76 15 76 / 76 33 85.

Pisua salgai Koldo Eleizal-de 26an. ☎ 76 44 84.

Pisua salgai Burdñaten.
70 m². ☎ 76 38 06.

Pisua salgai K. Eleizalden.
Garajearekin. ☎ 76 45 16.

Gela bat hartuko nuke alo-kairuan. ☎ 76 57 70 (Enri).

Lokala alokairuan Koldo
Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Garajea (bi plaza) salgai
Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Pisua salgai K.Eleizalden
85 m². ☎ 76 31 57 (gauz).

Pisu bat alokatzen da An-tzuolan. ☎ 76 21 06.

Garaje bat alokatuko nuke
Burdñaten. ☎ 76 18 52.

Garajea salgai Zurra-deron. ☎ 76 13 93.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 00 39 / 79 27 68.

DENETARIK

Txakurrarendako kase-ta txikia salgai. ☎ 76 09 12.

Poltsikoko **Casio telebis-ta** salgai. ☎ 76 56 13.

Urrezko pultsera bat galdu nuen Gabonetan San Pedro inguruan.
☎ 78 08 48.

Hi-Fi kate txiki bateko bi bafle salgai. ☎ 76 52 31.

Opel Corsa (SS-AJ) ko-txea salgai. ☎ 76 28 17.

486 Compaq ordenado-rea salgai. 200.000 peze-ta. ☎ 76 00 91 (Javier)

San Antonion **pisua** kon-partitzeko lagun bat behar da. 15.000 pta. hileru.
☎ 76 30 34 (David/Lisa).

Renault 4 F6 kotxea sal-gai. ☎ 76 22 11.

Bigarren eskuko **karabina** erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

Kawasaki 125 KX moto-rra salgai. ☎ 76 25 50.

Musika bateria salgai. Ia berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

Bizikletan aritzeko rodilloa erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

Josteko makina salgai.
Egoera eta prezio onean.
☎ 76 48 47 (Loli).

Mahai borobila salgai. 90 zm.ko diametroa. Singer makinaren oinarria. 20.000 pezeta. ☎ 76 52 31.

"Imar" karro-denda salgai.
☎ 76 58 62 (gauz).

Comodore ordenagai-lua salgai. 50.000 pezeta.
☎ 76 56 13 (Iker).

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

Matematika klaseak.
☎ 76 06 50.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89

Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke.
☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filologia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Cambridgeko titulua duen publizitate lizentziatuak ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 06 56 (Irene).

Neska euskaldun bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko.
☎ 76 57 93.

Euskara eta gaztelerako itzultzailea behar da.
☎ 77 04 98.

Irakasleak behar dira AEK Akulu euskaltegian.
☎ 76 08 15.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak

astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA



"Figuratiboarekin hasi nintzen orain dela 11 urte. Orain, forma karratuak, abstraktoak lantzen ditut"

"Material nobleak edo klasikoak erabiltzen ditut: egurra, harria eta burdina batipat"

XABIER DE ZERIO, ESKULTOREA

"Txillida eta Oteizaren artean, Oteizarekin geratzen naiz, bera da genioa"


Xabier de Zerio (Bargota, 47 urte) eskultore bergararrak Zaragozan ikusgai ditu bere lanak Ibercajak antolatutako erakusketa batean. Otsailaren bigarren hamabostaldian, berriz, Huescan erakutsiko ditu egurrez, harriz eta burdinez landutako 17 eskulturak. 29 urte daramatza Bergaran bizitzen eta San Martin ikastetxean espresio artistikoa erakusten du.

- Noiz hasi zinen eskulturak lantzen?

- Orain dela 11 bat urte. Aurretik argazkigintza eta margogintza munduan saiakera batzuk egin nituen. Eskulanak beti gustatu izan zaizkit eta eskulturarako grina aspalditik datorkit.

- Aragoiko erakusketetarako prestatu duzun lana zein ildotan koka dezakegu?

- Arestian Iruñean egin dudana erakusketa dela eta, Euskal eskolaren erdibideko belaunaldian kokatu du nire lana Diario de Navarrako kritikorek. Nolabait, Oteiza edo Txillidaren jarraitzaileak diren eta eskola modernoan koka ez dai-



Zaragozan eta Huescan erakusten du Xabier de Zerio.

tezkeen erdibideko belaunaldi bateko eskultoreen artean, Lertxundi edota Mendizabalekin batera.

- Oteiza eta Txillidaren artean norekin geratzen zara?

- Oteizarekin. Bera da genioa. Eskultura munduan egin daitekeen guztia egin du berak.

- Ze material erabiltzen dituzu?

- Material nobleak edo klasikoak, egurra, harria eta burdina.

- Hasi zinenetik ze bilakaera izan du zure lanak?

- Figuratiboarekin hasi nintzen, arraunlariak, harrijasotzaileak... egiten. Orain, berriz, forma karratuak, abstraktoak lantzen ditut gehiago.

- Bergara edota Euskal Herriko beste eskultoreekin harremanik baduzu?

- Gutxi. Bergaran pintore asko daude baina eskultorerik ez dago ia. Bittoriano Larrañagak utzi zion aspaldi eta gaur egun Juan Balentziaga eta ni neu ari gara bakarrik. Taila eta bustina lantzen dituztenak badira, baina eskultorerik ez. Euskal Herrikoen artean, Mendi-zabal eta Lakarekin harremanik badut eta euren lana gertutik jarraitzen dut.

- Non egiten duzu lan?

- Zabalotegin tailertxo bat dut eta han sartzen ditut egunero hiruzpalau ordu.

- Eskolan espresio artistikoa erakusten duzu.

- Bai, gustora nabil 11 urtetik 14ra artekoekin. Helburua, oinarrizko ideiak ematea da. Era guztietako materialeak erabiltzen ditugu eta marrazkigintzari ere garrantzi handia ematen diogu.

"Oteiza edo Txillidaren jarraitzaileak diren eta eskola modernoan koka ez daitezkeen erdibideko belaunaldi bateko eskultoreen artean kokatu dute nire lana"



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. MADURA INDUSTRIAS GOL	22	11	37	18
2. ERROTAGAIN	22	10	33	19
3. BAR CANALEJAS	22	11	29	13
4. MONGATXURRA	21	10	41	18
5. OGIZUN	20	11	38	32
6. KABIA	17	11	28	26
7. ORTZI	16	11	24	27
8. BERGATRANS	15	9	26	18
9. BILDURABEK OPEL/LAM	9	10	21	25
10. ARLOTEAK	8	10	21	30
11. OZAETA	7	11	28	35
12. UFALA	3	11	23	47

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JALJA OH ZEREZOS	31	11	78	27
2. A ZE FLAXA	25	11	38	29
3. PAGOMENDI	20	11	54	37
4. HARTU ZAMAK	20	11	40	30
5. ETXAGI	16	11	53	44
6. UVE BIKOITZA	15	11	35	51
7. NAIKARI HOOLIGANS	13	11	30	34
8. AUTOBEREZI	12	11	41	49
9. KAYAK OS JARDINEIROS	12	11	53	40
10. HALTZARI	12	11	29	48
11. ERI	7	11	32	43
12. INDARGORRI	6	11	18	30

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	28	12	59	29
2. SOROPOTROAK	27	11	60	32
3. LA JUVE	19	11	38	38
4. NEKROFILIKOS	18	11	42	32
5. MOSKIS	17	11	28	36
6. AMOZKIBAR	17	11	24	18
7. CONSTRUCCIONES BERGARA	16	11	37	30
8. EZINLEIKE	15	11	47	32
9. EH BITERRAK	14	11	21	35
10. SHAKTALE	8	11	23	41
11. ARI ARI	6	10	38	58
12. IGANDEKOAK	4	10	24	34

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	25	10	48	20
2. PJS	22	10	50	17
3. GUADALEST	20	10	47	20
4. TXIPIRON	19	10	35	19
5. PATXARAN TEAM	17	10	36	22
6. OSINTXU	17	10	45	24
7. PATA NEGRA	13	10	28	51
8. MATXAKATEGI	11	10	41	46
9. LABEGARAIETA	7	10	20	53
10. ALDOKA MALDOKA	7	10	34	34
11. XURRUPAK	0	10	16	66

TALDEAK



Uve Bikoitza taldea Ibon Arrieta, Aitor Bolinaga, Aitor Markina, Markel Leturia, Iban Molina, Karmelo Kalboetxeaga, Joseba Izarbe, Patxi Osa, Xabier Mujika, Aitor Urzelai eta Mikel Elkoroberezibarrek osatzen dute. Lau urte daramatzate elkarrekin jokatzeko eta beti bigarren mailan izan dira. Izenari dagokionez, garaipenaren "V"-a esan nahi du, baina emaitzei begiratuz, ez datoz bat izenarekin. Halere, ez dute etsitzen eta kopan "zerbait" egingo dutela dioskue, "taldearen egoera fisikoa hobetzen badugu". Beraz, badakite, "bizioak" utzi eta denak footinga egitera!

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: FAC-Pata Negra • Xurruapak
10:00: Xurruapak-Aldoka Maldoka • Pata Negra
11:00: Igandekoak-Ezinleike • Aldoka M.

LARUNBATEAN KANPOAN

09:00: A Ze Flaxa-Autoberezi • Naikari H.
11:00: Naikari Hooligans-Etxagi • Autoberezi
11:00: Errotagain-Kabia • Etxagi

IGANDEAN BARRUAN

09:00: Matxakategi-Txipiron • Moskis
10:00: Moskis-Kirolzaleak • Matxakategi
11:00: Osintxu-Patxaran Team • Kirolzaleak
16:00: EH Biterrak-Amozkibar • Soropotroak
17:00: C. Bergara-Soropotroak • Amozkibar
18:00: Ari Ari-La Juve • C. Bergara
19:00: Shaktale-Nekrofilikos • La Juve
20:00: Guadalest-PJS • Nekrofilikos

IGANDEAN KANPOAN

09:00: Hartu Zamak-Kayak OJ • Eri
10:00: Eri-Uve Bikoitza • Hartu Zamak
11:00: Bildurbarek-Arloteak • Uve Bikoitza
16:00: Haltzari-PJS • Indargorri
17:00: Indargorri-Pagomendi • OH Zerezos

EMAITZAK

1. MAILA

BILDURBAREK OEL/LAM-OGIZUN 2-5
OZAETA-UFALA 6-6
ARLOTEAK-MADURA INDUSTRIAS GOL 1-4
ERROTAGAIN-BAR CANALEJAS 0-2
ORTZI-MONGATXURRA 1-6
BILDURBAREK OPEL/LAM-OZAETA 3-2

2. MAILA

HARTU ZAMAK-OH ZEREZOS 2-3
UVE BIKOITZA-KAYAK OS JARDINEIROS 3-2
A ZE FLAXA-PAGOMENDI 4-3
KAYAK OS JARDINEIROS-AUTOBEREZI 3-4
HALTZARI-INDARGORRI 2-1
NAIKARI HOOLIGANS-OH ZEREZOS 2-5

3. MAILA

EZINLEIKE-AMOZKIBAR 1-1
EH BITERRAK-IGANDEKOAK 4-2

4. MAILA

XURRUPAK-GUADALEST 0-5
FAC-TXIPIRON 1-2
PATXARAN TEAM-XURRUPAK 5-1

TALDEAK



Kayak Os Jardineiros taldea Joxe Balanzategi, Josu Lazpiur, Goio De Miguel, Iñaki Arbulu, Enrique Nieto, Iñaki Azpiazu, Jon Suinaga, Mikel Uribealzo, Rafael Salazar, Iñigo Marino, Asier Ziarsolo, Miguel Manso eta Jabi Garmendiak osatzen dute. 3 urte daramatzate txapelketan. Gehienak Matxategi auzokoak dira eta esan digutenez "auzoko jarraitzaileen laguntza ezinbestekoa zaigu partiduetan". Os Jardineiros izena, koadrilak duen jaietako brusa loradunagatik jarri zioten. Duela bi urte bigarren geratu ziren Kopan.

TXINPARTAK**Nesken futbito txapelketa**

Joan zen astebukaeran jokaturako partiduetan Potzu Ta Zapaburuk 7 eta 0 irabazi zion Push Team taldeari.

Almondigak taldeak, berriz, 6 eta 1 irabazi zion Berdin Da taldeari. Hiru jardunaldi jokatu direnean, Potzu Ta Zapaburu doa lehen postuan sailkatuta.

Eneritz Muguruza Espainiako Txapelketan

Eneritz Muguruzak astebukaera honetan Lugon jokaturako den Espainiako Igeriketa Txapelketan parte hartuko du infantil mailan 100 metro krolen. Bestalde, joan zen astebukaeran Legazpin jokaturako Gipuzkoako Txapelketan, 400 metro krolen urrezko domina lortu zuen eta 200 metro tximeleta eta estiloetan, zilarrezkoa. Erreleboetan, infantil taldeak 4 bider 100 metrotan brontzeko domina irabazi zuen.

Uberako txapelketak

Uberako Pelota Txapelketan Aranburu bergararrak 18 eta 0 irabazi zion Zubikarai antzuolarrari alebin mailan. Infantiletan Alzola atxabaltarrak 18 eta 12 Muguruza bergararrari. Auto-kross proban, bestalde, 59 pilotuk hartu zuten parte. Oscar Ortueta bolibardarra (R-5 1.300) izan zen onena.



1995eko herriko kirolaririk onenak asteartean Kultur Etxean egindako sari banaketaren ostean.

Herriko kirolaririk onenak saritu ziren asteartean

Asteartean saritu ziren Kultur Etxean, 1995eko herriko kirolari eta kirol elkartetik onenak. Victoriano Gallastegi alkateak eta Xabier Zabaleta kirol zinegotziak banatu zituzten sariak.

Goi milako kirolaririk onena Berrigarako irakurleek aukeratu dute herriko 12 kirolari profesionalen artean. 311 botu jaso dira aurten, inoiz baino gehiago, eta Jokin Etxaniz

(105 boto) izan da irabazlea. Garaikurra jaso zuen Jokin Etxanizek.

Gazte mailetakako kirolaririk onenak, berriz, herriko elkarteek aukeratu dituzte. Klub bakoitzak berea aukeratu du eta 17 kirolaririk jaso zuten trofeo bana.

1995eko kirol elkartetik onenaren saria Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeak eraman zuen, horrela aukeratu baitzuten

herriko berriemateak. Kirol materialean gastatzeko 50.000 pzta. jaso zuten Ariznoako ordezkariak.

Sari berezia

Honorio Agirregabiria-ri eman zaio aurten sari berezia. Urtetan herrian ziklismoa, mendia eta atletismoaren alde egindako lanagatik nabarmendu da Honorio Agirregabiria. San Antonioko La Parra tabernatik, Loroño peñaren bultzatzaile izan zen, auzoko ziklismo lasteketaren eta Uzarragako txirrindularitza igoeraren bultzatzaile, Gorla Alpinoren sortzaile, Elgoibarko Mugertza Memorialean antolaketan aritutakoa... 1957 eta 63ko Espainiako ziklo-kross txapelketak Bergarara ekarri zituen. Ezkerreko argazkian erdian ageri da Gurutz Arrieta eta Pedro Igartuarekin batera.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Beti Ona

Lehen errejionala.
Larunbata, 17.15. Ipintza.

◆ Bergara-Ilintxa

2. mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

◆ Bergara-Urola

2. mailako kadeteak.
Igandea, 11.30. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

◆ Almondigak-Push T.

Igandea, 16.00.
Miguel Altuna Institutua.
Kantxa nagusia.

◆ Berdin Da-Blue Star

Igandea, 17.00.
Miguel Altuna Institutua.
Kantxa nagusia.

◆ Potzu T.Z.-Guk

Igandea, 16.00.
Miguel Altuna Institutua.
Bigarren kantxa.

ESKUBALOA

◆ Bergara-Hernani

Jubenil neskek.
Larunbata, 17.15.

◆ Bergara-Hernani

Kadete neskek.
Larunbata, 18.45.

◆ Bergara-Elgoibar

Senior mutilak (2. territoriala).
Igandea, 12.15.
Hirurak kiroldegian.

SASKIBALOA

◆ Ibili Bergara-Atco SS

Senior mutilak.
Larunbata, 19.00.

◆ Bergara-Lasarte Oria

Junior neskek.
Larunbata, 12.15.
Blak kiroldegian.

Asier Linazisoro

Hainbat kiroleetan trebea

Neguko kiroleetan eskia beti izan da nagusi, baina azken urteetan eskiatzaile askok eskiak laga eta snow-boardeko tabla aukeratu dute. Horretaz gain txapelketak ere hasi dira antolatzen eta horretan dabil azken hiru urteotan Asier Linazisoro bergararra, emaitza txukunak lortuz gainera.

- Zer moduz doakizu aurtengo denboraldia?

- Orain arte bi karrera egin ditugu, lehenengoa Boi-Taulen eta eslalon gigantean Espainia mailako 8. geratu nintzen. Joan zen asteburuan Astunen eslalon paralelo txapelketa izan genuen eta bigarren mangan erori ondoren 21. amaitu nuen. Hori ikusirik aurtengo denboraldirako helbururik nagusia eslalon gigantean 10 lehenengoan artean sartzea izango litzateke. Iaz 14. geratu nintzen eta ahal baldin badut hobetzea espero dut.

- Ze diferentzia dago eslalon gigante eta paraleloaren artean?

- Eslalon gigantea alpinon bezala jeistea da eta paraleloan beste lehiakide baten aurka neurtu behar dituzu indarrak distantzia motzagoan. Eslalon gigantean hobeto nabil indar gehiago behar baita, bestean, berriz, habilitatea garrantzitsuagoa da.

- Noiztik snow-board txapelketetan?

- Lasterketetan 3 urte

daramatzat eta oholean uste dut aurtengoa 5. denboraldia dela. Ni hasi nintzanean Astunen monitorea gutxi batzuk zebiltzan snow-boardean eta gaur egun Bergara mailan badira beste batzuk nahiko ondo dabilzanak lasterketetan. Esate baterako Aitor De La Riverette eta Saioa Andueza. Halere, azken urteotan kirola profesionalizatu egin da eta gero eta maila hobea dago. Badira snow-boardlari batzuk urte osoan zehar entrenatzen ari direnak, udan Argentinara joanez eta horiei aurre egitea zaila da.

- Squashean egiten al duzu oraindik?

- Bai eta oraindik Gipuzkoako txapeladuna naiz. Horrezaz gain, joan zen abenduan Murtzian jokaturako Espainiako Taldekako Txapelketara joan ginen eta 3. postuan amaitu genuen. Orain arteko emaitzarik onena izan da.

- Squasha ala snow-boarda?

- Ez dakit biak gustatzen zaizkit. Halere, squasha gogorragoa eta snow-boarda politagoa da, aire librean zaude eta squashean, berriz, toki itxian.



Ballantines zirkuitoan 10 lehenen artean sartzea du helburu.

"Snow-boarda egiten duen gero eta zaletu gehiago dago Bergaran"



Santa Ageda bezperan...

Igande honetan, Santa Ageda bezperan, herriko hainbat talde aterako dira kalera Santa Ageda eskean, aspaldiko ohiturari eutsiz. Aspaldikoa dela frogatzeko, hor duzue 1931 urte inguruan ateratako goiko argazkia. Bizente Okinak ekarri digu.

Orain egiten den bezala, orduan ere kantuan egiteko elkartzen ziren eta kalez kale, diru eskean aritzen ziren. Argazkian agertzen diren mutilek 10-11 urte izango zituzten orduan eta kantuan ondo egingo zuten, Bizente Okinak berak ez baitu horretarako zaletasuna galdu. Santa Marinako koruko partaidea da eta datorren igandean, otsailak 11, merezitako omenaldia jasoko du Sabin Zelaia eta Felix Aseginolazarekin batera. Horra hor argazkian, ezkerretik esku-mara, agertzen direnen izenak:

Zutik: Luis Arizmendi "Ate", Felix Mujika "Potxolo", Joseba Laborda, Jose Mari Iñarra eta Andres Agirre.

Jarrita: Carlos Sasieta, Luis Arrieta "Kolo" eta Bizente Okina.

Argazkia: Bizente Okina



umelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio,
5 BERGARA
☎ 76 20 21




ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK


Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

Zimur, mantxa eta akne arazoak konpontzeko azken kosmetologia aurrerapena

% 100 naturala, % 100 eraginkorra



BIOPEELING NEODERMA *belarretan oinarrituta dago.*
Tratamendu honek exfoliazioa eragiten du, hau da,
azaleko kanpo geruza ezabatu eta, beraz, porua zabaldu
egiten du. Zure azala BERPIZTU eta GAZTETU egingo da.



Tratamendu hau AMETSen baino ez duzu aurkituko

Amet

ESTETIKA

INFORMA ZAITEZ!!

Masterreka, 19 behea

BERGARA

☎ 76 46 53

Amet

ESTETIKA

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN
espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxe: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!